



Gerraosteko heziketa sistemari kritika.- 'El florido pensil, Neskak' antzezlanaren oholtzaratu zuen ostiral gauean Ttanttaka taldeak, Manuel Lekuona kultur etxean. Andres Sopeña Monsalvek sortutako obrak arrakasta handia eduki zuen 90. hamarkadan, eta herritarrek ostiralean ikusi ahal izan zuten horren moldaketa bat da. Mireia Gabilondo eta Fernando Bermesen gidaritzapean, maisuki aritu ziren oholtza gainean Elena Irureta, Loli Astoreka, Itziar Lazkano, Teresa Calo eta Gurutze Beitia aktoreak. Antzezlanean kontatzen dira Espainiako gerraostean zehar indarrean egon zen heziketa sistemaren "basakeria burugabea eta ilogikoa" jasan zuten neska koadrila baten gorabeherak. Garai horretan heziketan ezarri zen ideologiak "Erdi Aroko patriarkatu sakonena" berreskuratu eta "azken ondorioetaraino ezartzea" erabaki zuen; ekintza moralizatzaile horren jomuga emakumeak izan ziren. Aipatu hezkuntza eredu horri kritika egitea bilatzen du antzezlanak, eta baita lortu ere, ikusleek obraren eszena bakoitzean ikusi ahal izan zuten lez. Txalo zaparrada luzea eskaini zieten bukaeran antzezleei, haien lan onari eskerrak emanez.

2 ATERPEA Herriko 37 dendak hartuko dute parte Udaberriko Festan

Aterpea merkatarien elkar-teak, Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, III. Udaberriko Festa antolatu du ostiral honetarako. Herriko 37 komertzio hartuko dute parte aurtengo edizioan: haurrentzako puzgarriak, deskontuak dendetan, tailerrak... Udaberria iritsiko da ostiralean herriko komertzio eta plazetara.

4 KULTURA Kontakt Inpro III. Topaketa ospatuko da asteburuan

Kontakt dantza iritsiko da Lasarte-Oriara asteburu honetan. Ostiralean hasi eta igandera bitarte, Sasoeta ikastetxean eramango da aurrera Kontakt Inpro III. Topaketa. Euskal Herriko zein atzerriko dantzariak etorriko dira ikastaro eta jam sesioetan parte hartzera. Antolatzaileek herritarrak gonbidatzen dituzte parte hartzera.

5 INGURUMENA Guraso gipuzkoarrak kezkatuta errauste plantaren eraginekin

GuraSOS mugimendua jarri dute martxan Gipuzkoako hainbat gurasok, Aldundiak Zubietan eraiki nahi duen errauste plantak gaztetxoaren osasunean izan dezakeen eraginak arduratuta. Pasa den larunbatean aurkeztu zuten egitasmoa, kultur etxean. Ekintza ugari egingo dituzte datozen asteetan.



www.ihusurbil.com
943 36 46 00

Etarte bidea, 9 (Zubieta) - 20170 Usurbil

Maiatzak 7, 11 eta 14 ATE IREKIAK



Erdi eta goi-mailako zikloak
A, B eta D ereduak



ATERPEA

Udaberria herriko komertzio eta plazetan

Ekintzaz beteriko III. Udaberriko Festa antolatu du Aterpeak ostiral honetarako

Deskontuak herriko hainbat komertzioetan, tailerrak, haurrentzako puzgarriak, marrazki lehiaketa... Denetarik edukiko du aurtengo Udaberriko Festa. Aterpea merkatarien elkarteak antolatu du, Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Denera herriko 37 establezimenduk hartu dute parte. Udaberria iritsiko da ostiralean Lasarte-Oriako denda eta plazetara.

Ostiral honetan ospatuko da III. Udaberriko Festa Lasarte-Orian. Aterpeak antolatu du ekitaldia, Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Halaber, 37 establezimenduk hartu dute parte egun berezi horretarako egitaraua prestatzen. Eskerrak eman zizkien horiei guztiei Ramon Ormazabal Aterpeko lehendakariak ostiral eguerdian egindako prentsurrekoan, eta dei bat egin ere bai: "Ea guztion artean herriari ikusgarritasuna, udaberri-kutsua eta batez ere kolorea ematen dizkiogun". Zeregin hori lortze aldera, egitarau anitza prestatu dute

antolatzaileek. Denetik dago: haurrentzako puzgarriak, deskontuak komertzioetan, tailerrak, marrazki lehiaketa, batukada kalejira... Osagai guztiak edukiko ditu ostiraleko udaberriko festa.

Puzgarriak bi plazatan

Arratsaldeko seietatik bederatzietara, haurrek ederki pasa ahalko dute Juan XXIII eta Zumaburuko Eliza plazetan egongo diren puzgarriekin. Antolatzaileek jakinarazi dute Loidi Barren pilotalekura eramango liritekeela jolas horiek, euria egingo balu. Bien bitartean, Dinbi Banda batukada



Aterpeko eta Udaleko ordezkariak, pasa den ostiraleko aurkezpen prentsurrekoan, Juan XXIII plazan.

taldeak kaleak girotuko ditu, 19:00etatik 20:00etara, batukada kalejirarekin.

915 marrazki dendetan

Herriko bi ikastetxeetako haurren marrazkiz josita egongo dira 37 komertzio ostiralean. Gaztetxoek gogo onez hartu

dute parte marrazki lehiaketan; papera eta margoak erabiliz, adierazi behar izan dute eurentzat herriko tokirik kuttunena zein den.

Herritarrek hainbat tailer ere egin ahalko dituzte: landaregintza, marrazketa eta esku-langintza, besteak beste.

Era berean, aipatu 37 establezimendu horietan deskontu ugari edukiko dituzte.

Sozioekonomia zinegotzi Beatriz Juezek ostiralean esan zuenez, "bere esku dagoen guztia" egingo du Udalak, aurtengo Udaberriko Festa "arrakastatsua" izan dadin.

Patuaren eragina eta askatasuna aztergai

La mano del destino: Libertad' izeneko eleberria aurkeztu zuen Imanol Etxabe herritarrek joan den ostiralean, Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan. Aipatutakoa lehenengo lana du Etxabek; autoargitaratutakoa da. Fantasia epikozko istorioa da, filoso-fiaren eragina ere baduena.

Hainbat lasarteoriar hurbildu ziren aurkezpen ekitaldira. Idazlearen azalpenak adi entzun ostean, galderak egiteko eta liburua erosteko aukera izan zuten. Etxabek jakinarazi zuenez, salmentagatiko irabazien zati bat Medicus Mundi Gipuzkoa erakundeak eraman-godu. Amazon plataforman ere erosi daiteke eleberria.



Imanol Etxabe, idatzitako eleberria aurkezten, pasa den ostiral arratsaldean.

Patua eta askatasuna

Sion Selaphain alkimista gaztearen istorioa kontatzen da eleberrian. Zigilatua geratu da haren patua, kleroak bere

familia kondenatu ostean. Gaiden maisuaren laguntzarekin, hala ere, bitzta berri bati ekiten dio Sionek, eta anaia salbatzen saiatuko da.

EHBilduk bizikidetzaz lantzeko saioak antolatu ditu

Gatazka politikoak izan dituen eta izaten jarraitzen dituen ondorio guztiak gogoan edukita, Lasarte-Oriako EHBilduk herrian bizikidetzaren bidea modu aktibo eta eraikitzailean landu eta aurrera eramateko helburuz hitzaldi eta lan saio ziklo bat antolatu ditu hilabete honetarako.

Lan saio horiek gaur eta hilaren 17an zein 19an ospatuko dira Villa Mirentxuko aretoan, arratsaldeko 19:00etan hasita.

Errenteriako esperientzia

Gaurko saioan, Errenteriako esperientzia ezagutuko dute Villa Mirentxura hurbiltzen


diren herritarrek. Errenteriako alkatea den Julen Mendozak, udalerrri horretan egindako lanaren berri eman, konpartitu eta sortu daitezkeen galderak erantzun eta argibideak emango ditu.

Maiatzaren 17ko eta 19ko hitzorduetan, berriz, Lasarte-Oriako EH Bilduko kide eta lagun guztien artean hausnartu eta bizikidetzaren bidea zehazteko aurrera begirako helburuak finkatzeko aukera izango dute.

Lasarte-Oriako EH Bilduk bere lagun eta kide guztiak "biziki" gonbidatu nahi ditu lan saio berezi hauetan parte hartzera.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizaguirre, Martin Vicioso,
Iñigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maider Segurola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

UDALBATZARRA

Hainbat gai hizpide biharko plenoan

Aparkaleku faltari buruzko mozioa eramango du EH Bilduk; kirol eskaintza handitzearen ingurukoa EAJk

Herritarren interesekoak diren zenbait gai eztabaidatuko dituzte biharko udalbatzarrean. Lasarte-Oriako aparkaleku falta dela eta, alternatibak aztertzeko eskatuko du EH Bilduk. EAJk, berriz, Udalaren eta herriko gimnasioen arteko hitzarmena eskatuko du, kirol eskaintza handitze bidean. Errauskailua, Diru-sarrerak Bermatzeko Laguntzak, Somotoko finantziario ez justifikatua eta Ekuadorreko lurrikara ere izango dituzte hizpide.

TXINTXARRI

Udalbatzan ordezkari talde politikoek bihar egingo dute maizteko udalbatzara. Zenbait mozio eztabaidatuko dituzte.

PSE-EEK Ekuadorren izandako lurrikarari buruzko "mozio humanitarioa" aurkeztuko du, batzarrari hasiera emanez. Lasarte-Oriak Ahal Duk, berriz, "Somotora justifikatu gabe bidalitako diruari buruzko erreklamazioa" jarriko du mahai gainean.

Aparkaleku falta

EH Bilduko zinegotzi Pablo Barriok eta Kristina Bernalek agerraldia egin zuten ostiralean Hipodromoko aparkalekuan. Azaldu zuten, "kotxea herrian uzteko arazoak daude lasarteoriatar askok hara jotzen duelako" erabaki zuten agerraldia bertan egitea.

Herritarren iritziak bilduz, aurreko legegandian aparkaleku faltaren arazoari aurre egiteko ikerketa egin zela azaldu zuten EH Bilduko zinegotziek ostira-



EH Bilduko Pablo Barrio eta Kristina Bernal Hipodromoko aparkalekuan.

lean. Batzordean "erantzun zehatzik" jaso ez dutenez, mozioa aurkeztuko dute biharko udalbatzarrean, egina dagoen azterketa hori "etekina ateratzeko" eskatuz.

Apirilaren 11n Jaurlearitzak Aldundiari errauskailua egin ahal izateko ingurumen baimean eman zizkion. Gorako errekurtsioa jartzeko eskaera plazaratuko du EH Bilduk.

Aldundiak Diru-sarrerak Bermatzeko Laguntzak kendu izana salatuko dute, baita erabilatuko "hizkera xenofoboa" ere. Hori dela eta, Lasarte-Oriako "laguntza lerro bat sortzea" proposatuko dute.

Herriko kirol eskaintza areagotzeko proposamena

Udalak herriko lau gimnasio pribatuekin eta hipikarekin hitzarmen bat sinatzea, kirol eskaintza areagotzeko. Proposamena hori eramango du EAJk biharko udalbatzarrerara.

"Akordio horren bitartez, udal instalazioetako bazkideek gimnasioetako jarduerak

egin ahal izateko, tarifa murriztuekin; kirol eskaintza duplizitateak saihestuko lirateke eta instalazioak berritzera bideratutako inbertsioak murriztu. Denok irabaziko genuke: herritarrok, Udalak eta herriko kirol zentroek", nabarmendu zuen Estitxu Alkorta ostiralean egindako agerraldian.

Jon Antxordoki zinegotziak jakinarazi zuenez, beste herri batzuetan "positiboki" ari dira burutzen antzeko esperientziak. Esate baterako, Galdakaon (Bizkaia).

Hitzarmena sinatzeaz gain beste eskaera batzuk egingo ditu alderdi jeltzaleak bihar: herriko kirol taldeek instalazio pribatu horiek erabili ahal izatea eta akordioa Buruntzaldea bailarara hedatu ahal izatea, besteak beste.



Udalari gimnasioekin eta hipikarekin akordio bat sinatzeko proposatuko dio EAJk bihar, "herriko kirol eskaintza areagotzeko".

Zabaletako jaiak prestatzen

Uda iristear da eta dagoeneko hasi dira herri ezberdinetako jaiak. Gurean Zabaleta auzoko jaiak dira lehenak. Teresa sorginaren bisita berezia izan ohi du auzoak egun horietan.

Zabaleta auzoko lagunek aurreratu dutenez, ekainaren 3tik 5era egongo da sorgina haien artean. Hori dela eta, aste osoa iraungo dituzten jaiak, hau da, maiatzaren 30etik ekainaren 5era arteko egitaraua prestatzen hasi dira.

Jai batzordeak ostegunean egin zuten lehen bilera eta jaiak hasi arte ostegunero bilduko dira Antonio Blas plazan egitaraua fintzeko.

Hala ere, laguntza behar dute eta auzotarrak gonbidatu nahi dituzte bilera hauetan parte hartzera.



Txozna

Era berean, jaietan janari eta freskagarriak banatzen dituzten txozna prestatzeko ere lagunak behar dituztela jakitera eman dute.

Txoznaren muntaketa eguna maiatzaren 13an, ostiralean izango da eta esku pare bat baino gehiago ongi etorriak izango direla adierazi dute.

Bazkari txartelak

Bestalde, ekainaren 5ean igandean antolatuko den herri bazkari tiketak salgai dardela adierazi dute.

Helduek 15 euro eta haurrek 8 euro ordaindu behar dituzte menu gozoa dastatu ahal izateko.

Txartelak ekainaren 3a arte eskuragarri izango dira auzoko dendan.

'Jolasen altxorra' saioak plazatik plazara

Amarau Klubeko lagunek aurten ere 'Jolasen altxorra' ekimena antolatu dute.

Alaba, anai, aita, amona, aitona, gurasoak... Adin guztietako senideek batera jolasteko aukera izango da.

Jolasak ezagutzak eta baloreak oharkabean transmititu eta jasotzeko tresna dira eta senideek eginez gero, ez dago haurrentzat hoberik.

Hizkuntza transmisioa ere garrantzitsua denez, saioak euskaraz izango dira.

Auzo ezberdinetan

Ekimena Lasarte-Oriako lau plaza ezberdinetan eramango da aurrera.

Lehen hitzordua Okendo plazan izango da ostegunean, maiatzaren 12an. Maiatzaren 19an, berriz, Jaizkibel plazan izango dira; Oria auzoan

maiatzaren 26an eta ekainaren 2an Zabaletako jaietan.

Saioak arratsaldeko 18:00etan hasiko dira.

Izena ematerik ez

Saioetan parte hartzeko ez da izenik eman behar.

Amarau Klubeko lagunek familiei gonbida egiten diete saioetara hurbildu, gozatu eta jolastera.



Kontakt dantza, gorputzaren onuraren bila

Asteburuan, Kontakt Inpro III. Topaketa izango da Lasarte-Orian

Euskal Herriko Kontakt Inpro elkarteak antolatzen duen jaialdia maiatzaren 13tik 15era Lasarte-Oriako Sasoeta ikastetxean eramango da aurrera. Euskal Herriko eta atzerriko dantzariak etorriko dira ikastaro, zein jam saioetan parte hartzera. Maider Oiartzabal eta Oskar Estanga elkarteko kideekin izan gara Topaketaren berri gehiago jakiteko.

Nerea EIZAGIRRE

Kontakt Inpro dantza New Yorken 60-70. hamarkadetan sortu zen dantza da. Mundu mailan oso hedatua dago. "Teknika bat da non, kontaktaren bidez, elkar ekintzaren bidez, entzumenaren bidez, norberaren, espazioaren eta besteen kontzientzia izanik mugimendua bideratzen den. Kontakt inprobisazioa da teknika horiek inprobisaketara eramatea", azaldu digu Oskar Estanga 'kontakteroak'.

Maider Oiartzabalek aipatu legez, kontaktaren esentzia ez da erakustea. "Steve Paxtonek sortu zuenean, barruari begiratzeko zion. Fokua gure arteko harremanean zer gertatzen den da. Hor zerbait ikaragarria sortzen bada, primeran. Oso osasuntsua da besteen begiradaren menpe ez egotea".

Euskal Herrian orain dela lau zapabost urte hedatu da gehien, nahiz eta aurretik ezaguna izan. "Donostian Maider eta saio irekiak egiten hasi ziren, Bilbon ere, Iruñean... eta erabaki genuen elkarte bat egitea", aipatu du.

Dantzaren onurak

Oskarrek eta Maiderrek aipatzen dutenez, elkarteko kideek ez diote dantza teknikari garran-

tzia handirik ematen: "Dantzaren onurak eta ondorioak interesatzen zaizkigu".

Dantza honen bidez, "fisikoki entzumena garatzen du, gorputzaren malgutasuna eta besta gauza pila lantzen dira eta emozionalki ere lanketa handia egiten da."

Tresna potentia da haien ustetan: "Beste pertonekin harremanetzeko atea da, inprobisaziorako tartea ematen du, rolen hausnarketa egiteko balio du".

Errespetua eta naturaltasuna

Oskarrek adierazi moduan, norberaren trabez ohartzeko balio du. "Kulturalki harreman fisikoa ez dugu asko lantzen. Familia harremanetatik bikote harremanetara igaro ohi gara eta erdian dagoen tarte handia aztertzeke geratzen da".

Horretarako, Maiderrek azpimarratzen duenez, dantza teknika honetan errespetua eta naturaltasuna dira giltzak. "Marko bat sortzen da. Eta bertan dantza egiten duzue bestearekiko errespetua izanik. Naturaltasuna ere, garrantzitsua da. Umeak jolas modura ikusten dute. Ez dute aurreiritzirik eta era naturalean parte hartzen dute. Helduek ahaztu egin dugu hori".

Lasarte-Orian

Hau guztiaz gain, topaketek alde



Igandean, dantza ezagutzera emateko, Kontakt Inpro teknikako performancea egingo da kalean.

EHKIE

ekonomikoari garrantzirik ematen ez diotela aipatu dute. "Dena doan egiten da eta Udalen laguntza eskatzen da antolatzeko".

Aurten III. Topaketa gure herrian izango da asteburuan eta ehun bat dantzari izango dira bertan dantzan.

"Maider eta Kukuka daude bertan. Gainera Lasarte-Oria kultur mugimendu handiko herria da", azpimarratu du Oskarrek. "Lasarte-Orian antolatzeko gogo aspalditik genuen, baina hirugarrenean izan behar", aipatu du Maiderrek.

Penintsula osotik eta atzerriko etorritako dantzariak izango dira bertan. "Madrilen eta Bartzelonan foku handiak daude, baina gure topaketa ere erreferente bihurtu da Penintsulan eta kanpoan".

Egitaraua

Topaketetan hiru atal bereizten dira.

Kontakt teknika garatzeko ikastaroak eta jam saioak izango dira Sasoeta ikastetxeko gimnasioan.

Horiek Elkarteko kideek emandako saioak izango dira. "Kideek beste topaketa edo ikastarotan ikasitako eskaintzen dute bertan. Gure buruari oparitzen diogun master bat da", azaldu du Oskarrek.

Saio irekiak edo jam saioak ere egongo dira ostiral gauetan, larunbatean bazkaldu baino lehen eta gauetan eta igande arratsaldean.

"Hau da dantza honen esentzia eta zikloa osatzeko balio dute. Guztiak pasa gara hauetarik teknika honetan gure lehen pausoak emateko. Jendeak bere modura inbestigatzeko tartea da eta ez da teknikarik behar hau egiteko", ohartarazi du Oskarrek.

"Dena dago onartua teknika honetan. Ez dago zertan parte hartzerik. Jendea etorri eta kanpoan geratu daiteke ikusteko", adierazi du Maiderrek.

Larunbat gauetan, festa berezia izango da Jalgi Kafe antzokian.

"Harremanak lantzeko modu bat da", aipatu du Oskarrek. Maiderrek, "aisialdi sanoa

sustatzen dugu. Dantza berez plazer bat da eta ez da zertan sustantziarik behar honetaz gozatzeko", atxiki du.

Azkenik, dantza estilo hau ezagutzera emateko kalera aterako dira igandean, 13:00etan. Maiderrek zuzendutako performancea ikusteko aukera izango da Okendo plazan.

Herriarrei irekia

Saio guztiak lasarteoriarrentzat irekiak izango direla jakitera eman dute.

"Edonor ongi etorria izango da. Haur eta helduak, ezinduak... Ez dago genero bereizpenik, gorputzarekin lanean zaude eta", azpimarratu du Maiderrek.

Azkenik, Topaketaren ostean, herrian taldea sortzea ametsa izango litzatekeela jakitera eman du Oskarrek.

Topaketari buruz informazio gehiago jakin nahi duenak Maider Oiartzabalekin harremanetan jarri edo ehkie.kontakt@gmail.com helbide elektronikora mezu bat bidali dezake.

Musikarekin eta poesiarekin gozatzuz

Musika eta poesia uztartu zituzten Euskadiko Orkestra Sinfonikoko irakasle Carlos Rosatek, Tomas Rutik eta Mario Telentik. Ostiral arratsaldean Brigitarren komentuan eskainitako emanaldiak herritar ugari bildu zituen.

Beste konpositoreen obrak eta pieza originalak interpretatu zituzten, poetagile klasiko eta modernoekin hitzekin lagunduz.

Flautaz –Rosat–, fagotaz –Ruti– eta pianoz –Telenti– osatutako hirukoteak kontzertu atsegina eskaini zuen Lasarte-Orian. Harrera ona jaso

zuen, gogoz txalotu baitzuten pieza bakoitza.

Besteak beste, Gerog Phillip Telemann, Sabin Salaberreri edota Jesus Guridi konpositoreen lanak ekarri zituzten Lasarte-Oriara.

Rafael Albertiren "Se equivocó la paloma" edota Mosen A. Navaroren "Dels Quatre Vents" poemekin liluratu zituzten entzuleak.

Kontzertu eleanizduna izan zen ostiral honetakoak; euskara, gaztelania, katalana eta galiziera erabili baitzituzten emanaldian zehar.

Ezagunak dira Carlos Rosat, Tomas Ruti eta Mario



Flautaz, fagotaz eta pianoz osaturiko hirukoteak eskaini zuen emanaldia.

Telenti Lasarte-Orian. Izan ere, Brigitarren komentuan behin baino gehiagotan aritutakoak dira. Gainera, herriko adinduen aurrean ere, Atso-

bakar Zaharren Egoitzan, ere kontzertuak eskainitakoak dira.

Danok Kide Gurasoen Elkarteak, Lasarte-Oriako

Udaleko Kultura, hezkuntza eta hizkuntza sailaren laguntzaz, antolatu du emanaldia, XI. Musika Topaketaren barnean.

Gurasoak ere, erraustegiarekin arduratuta

GuraSOS mugimendua aurkeztu zuten Manuel Kultur etxean, larunbatean

Gipuzkoako Foru Aldundiak Zubietan eraiki gura duen errauste plantak kezka sortu du gizarteko hainbat eragile eta talderengan. Baita hainbat guraso gipuzkoarren ere. "Mundu desberdinetako kideen elkarlanetik" abiatuta, GuraSOS izeneko mugimendua jarri dute martxan, eta ahotsa altxatu, belaunaldi gazteenen osasuna babestea "diferentzia guztien gaineratik" dagoela aldarrikatzeko. Hainbat ekintza burutuko dituzte datozen asteetan.

TXINTXARRI

Interes politiko edo ekonomikorik ez dugu; bakar-bakarrik gure seme-alabak babestu nahi ditugu, ez dugu onartzen euren osasuna arriskuan jartzetik". Argi mintzo dira GuraSOS mugimenduko kideak. Babestu nahi duten horrekiko mehatxu gisa ikusten dute Gipuzkoako Diputazioak Zubietan eraiki nahi duen errauste planta, gaztetxoaren osasunerako "berme nahikorik" eskaintzen ez duela argudiatuta. "Mundu desberdinetako kideen elkarlanetik" jaiotako mugimendua "kide guztien elkargune" izan nahi du etorkizunean.

Egitasmoa iragan larunbatean aurkeztu zuten GuraSOS mugimenduko partaideek, kultur etxean. Jendetza bertaratu zen egitasmoaren nondik-norako berri izatera.

Ikasle talde batek ekin zion ekitaldiari, antzezlan bat ohol-tzaratuz. Jolasean ari zirela, kea botatzen hasi zen Zubietako balizko errauste-planta, eta maskarak jantzi behar izan zituzten gaztetxoek. Ikusleek txalo zaparrada luzea eskaini zieten neska-mutil horiei.

Kezka nagusia, osasuna

GuraSOSeko kide Maitane Izagirre eta Nelson Olivaresek eman zuten mugimenduaren xehetasunen berri. "Oinarria du gure kezka; osasuna arriskuan dagoenaren aitortza inplizitu bat dago", zehaztu zuen Izagirrek.

Hainbat arrazoi ere eman zituen: "Gipuzkoako agintariek Biodonostirekin hitzartu duten azterketa epidemiologikoa egin behar frogatzen du arrisku baten aurrean gaudela; bestalde, ikaritzen gaituzte OEIT taldeko medikuek berriki aurkeztu dituzten ebidentzia zientifikoek, datuek eta ondorioek, argi baitiote fetoak, haurrak eta gaztetxoak direla erraustegien efektuen eragin nabarmenenak jasaten dituzten taldeetako batzuk".

Olivaresek aipatu zuenez, Eusko Jaularitzak 30 kilometroko eragin-eremu bat onartu du, erraustegien kutsaduraren sakabanatze atmosferikoaren azterketari buruzko ikerketan. "200 hezkuntza zentro daude eremu horren barnean, gurea eta zuena barne, baita Donostiako ospitaleak eta Onkologikoa ere".



GuraSOS mugimenduko hainbat kidek talde argazkia atera zuten larunbateko aurkezpen ekitaldia amaitu eta berehala.

Belaunaldi gazteen osasunak arduratzen ditu GuraSOS mugimenduko partaideak, eta baita "isiltasunak" ere: "Arduratzeko gaitu Zubietan eraiki nahi dutenaren gisako azpiegiturek osasunean dituen eraginei buruz eztabaida gehiago ez egoteak", nabarmendu zuen Izagirrek.

Bi lan-ildo

Esparru batean baino gehiagotan ari da lanean GuraSOS. Batetik, mediku eta zientzialariengana jo dute informazio eske, eta baita "erraustegien arriskuari" aurre egin dieten gurasoengana ere. Horri lotuta, maiatzaren 21erako dibulgazio ekitaldi bat antolatu dute, Hernaniko Orona Ideo zentroan, orain arte jasotakoa gizarrekin partekatuz.

Familiez gain, aipatu eragin-eremuan dauden zentroi eta osasun munduan zeresana eman duten profesionalen ere egingo diete gonbitea jardunaldi horretarako, Izagirrek eta Olivaresek aipatu zuten.

Bestalde, euren kezka eta nahiak azalduz, manifestu bat prestatu dute mugimenduko partaideek. Jasotzen dituzten atxikipenak bildu eta gero, Markel Olano Gipuzkoako ahaldu nagusiari helaraziko diote. Eskatuko diote erraustegiaren asmoa "alde batera" uzteko, "prebentzio eta babes printzipioetan oinarrituz", larunbateko aurkezpenen jakitera eman zuten.

Sarean sina daiteke dagoeneko manifestu hori, www.gurasos.org webgunean, eta informazio gehiago eskuratu.

Azalpenen ostean, manifestuari buruzko bideo bat ikusi zuten kultur etxera joandakoek. Hori eta gero, eragin-eremuko herrietako familiak irten ziren hitzaldi aretoko oholtza inprobisatura irten ziren, eta talde argazkia atera.

Maiatzaren 29ko giza-katea

Hiru aste eskas geratzen dira errauste plantaren aurka eta osasunaren alde egingo den giza-katerako. Foru Aldundia eta Onkologikoa lotuko ditu. Herriko Aire Garbia plataformari Easo plaza eta Londres hotel arteko zatia egitea dago; 500 lagun beharko dituzte tarte hori betetzeko. Txartel bat bete beharko dute interesa dutenek, izen-abizenak jarri eta 29an Easo Plazan 11:30ean egoteko konpromisoa hartuz.

Xumelak harrera beroa Baztanen

Lasarte-Oriako Xumela koruak, Zarauzko Montetxio eta Hondarribiko Olagarro koruekin batera asteburu pasa ederra igaro du Baztanen.

Apirilaren 30ean larunbarekin abiatu ziren Lekarzoko aterpetxera hiru korotako 100 lagun, egitarau oparoa betetzeko asmoz.

Larunbatean bertan Elizondoko alkatearen eta historialari baten eskutik bisita gidatua izan zuten goizean goiz eta eguerdian 500 pertsonaz lagunduta kantujiran ibili ziren txistulariekin batera. Haurrak, gurasoak, gazteak...denak elkarrekin.

Arratsaldean berriz, Erratzuko elizan eskaini zuten kontzertua. Egunari amaiera

elkarrekin batera afalduz eman zioten Baztango Gaztelu koruarekin batera.

Igandean Amaiurko herri-tarrak zituzten zain. Bertan, bisita gidatuz gain gaztelura igo ziren denak. Bertako historia ezagutzeaz gain kantu saio ederra burutu zuten, tartean, Nafarroako ereserkia abestuz.

Elizondon bukaera eman zioten asteburuari kantari, datorren urtean baztandarrei Lasarte-Oriara etortzeko gonbitea eginez.

Galiziarren bisita

Hain zuzen ere, iaz Galizian izan ziren eta datorren asteburuan, maiatzaren 14an eta 15ean, Galiziako Solfa Kultura eta Musika elkarte

kideek asteburu pasa izango dute Xumela koruko lagunekin batera Euskal Herrira egingo duten bisita dela eta.

Joan den urtean izan zen Xumela korua, Hondarribiko Olagarro eta Zarauzko Montetxio koruko lagunekin batera Galizian kantari hiru egunez.

Aurten, Euskal Herriko koruek luzatutako gonbidapenari erantzunez, gure artean izango ditugu galziarrak.

Larunbatean, goizean goiz Pasaia Albalara egingo dute txangoa eta eguerdiko 13:00etan Lasarte-Oriako Okendo plazan kantaldia partekatuko dute Galiziako eta Euskal Herriko koruek.

Igandean Zarauzko Modelo zineman Jon Maia bertsola-



Korueta kideak Amaiurren ateratako argazkian.

XUMELA

riaren hitzaldia izango da goizeko 10:00etan.

Ondoren, kantaldia eskainiko dute Galiziako Solfa elkarte kideek, Lasarte-Oriako Xumela eta Zarauzko

Montetxio koruko kideekin batera.

Bukatzeke, elkarrekin mokadua jan eta topa eginez hurrengo batera arte agurtuko dute elkar.

PILOTA.-

Gorka nagusi Michelinen (22-11)

Promozioko eskuz banakako finaletik kanpo geratu da Arteaga II.a

Merezita sailkatu da Gorka Esteban Promozioko eskuz banakako finalera. Arteaga II.a baino dezente finago aritu zen larunbat arratsaldean Michelingo pilotalekuan, eta apenas eduki zuen aukerarik herritarrak partiduan sartzeko. Azkenean, 22-11. Beste batean beharko du.

TXINTXARRI

Nagusia izan zen Gorka Esteban Michelinen, larunbat arratsaldean. Arteaga II.a ez zion aukerarik eman apenas, eta Promozioko eskuz banakako finalera sailkatu da, 22-11 irabazita.

Aurreneko tantoetatik ikusi zen arratsaldea ez zela samurra izango Arteaga II.arentzat. 2-1eko tantoa izan zen adibide garbi bat: sekulako zartakoa eman zion pilotari, baina sabaian jo eta Gorkarentzat izan zen tantoa. Ongi eta konfiantzarekin hastea beti da lagungarria, baina ez zitzaion txanpona alde erori Arteagari, larunbatean.

Hala ere, Michelinera bertarutako zaleek ez zioten utzi Arteagari animoak emateari. 'Axier, Axier, Axier Arteaga!' oihuak behin eta berriro entzun ziren.

Ohartzerako, 12-3 goitik zen errioxarra. Zailtasunak izan zituen Arteagak Gorkaren sakeak indartsu erantzuteko, eta aurreko koadroetan ez

zuen barkatu Ezkaraikoak. Markagailuak 21-7koa adierazten zuenean etorri ziren Arteagaren tantorik onenak: lau egin zituen jarraian, ikusleek gozameneko. Hala ere, beranduegi zen ordurako, eta 22-11 irabazi zuen Gorkak.

Victor ere, jaun eta jabe

Esteban anaien jaialdia izan zen larunbat arratsaldekoa. Gorka nagusi izan bazen, zer esan Victorri buruz. Nahi duena eta gehiago egin zuen aurreko koadroetan, eta Ibai Zabalarekin batera, garaipen argia erdietsi zuen Elezkano II.a eta Untoriaren kontra. Azkenean, 8-22.

Bergara aurreratu da

Pilota izan zen protagonista larunbatean herrian. Goizean herriarteko txapelketari ekin zion Lasarte-Oriak. Bergaren kontra ari da final hamaseirenak jokatzeko. Joaneke norgehiagokak jokatu ostean, Bergara aurreratu da, 1-2.

Julen Urruzola eta Alex Etxeberria kadeteek 20-22



Arteaga II.a gogotik saiatu zen, baina ezin izan zuen Gorka Esteban garaitu.

galdu zuten, eta 9-22 Jagoba Mendizabal eta Eneko Sarasola jubenilek.

Eskerrak Jon Pello Artetxe eta Mikel Elola seniorrek irabazi zuten. 22-19 hartu zituzten mendean bergararrak, lan asko egin ondotik.

Emaizta horiekin, bi aukera ditu Lasarte-Oriak final zortzirenetara sailkatzeko: hiru partiduetan irabaztea, edo bi gutxienez. Bi irabazita ere, 12 tantoko alde negatiboa irauli beharko lukete herriko pilotariek. Zaila, baina ez ezinezkoa.



Bergara aurreratu da herriarteko txapelketako final hamaseirenetan.

ARETO-FUTBOLA.-

ISU Leihoak eta Cecilia Kebab Lasarte Ostadar, finaletara

Areto-futboleko Gipuzkoa mailan ari diren bi talde seniorrak, ISU Leihoak eta Cecilia Kebab Lasarte Ostadar, igoerarako kanporaketarako finaletara sailkatu dira. Eneko Molinaren jokalaria 3. Nazional mailara igotzeko ari dira lehian, eta datorren denboraldian Gipuzkoako 1goan aritzeko Edu Menarenak. Helburu horiek lortzeko, pauso bakarra falta zaie: larunbat honetako finalak irabaztea.

Final handiak Aretxabale-tako Ibarra kiroldegian jokatuko dituzte. Cecilia Kebab Lasarte Ostadarrek jokatuko du aurrea, 12:30ean, Power Rangers FCren kontra. ISUren txanda arratsaldeko zazpitan izango da: Pescados Ferreres izango dute aurkari.

Igoko dira bi taldeak, bat bakarrik, edo bat bera ere ez, baina argi dago gauza bat: denboraldi bikaina egin dute.

Emozioa azkenera arte

Zirraragarria izan zen ISUren eta Hirukideren arteko ostiraleko norgehiagoka, Kiroldegian. Etxekoek hobeto ekin zioten neurketari, eta berehala aurreratu ziren, laugarren minutuan Pablok sartutako gol bati esker. Hirukideek berdinketa ezarri zuen 23. minutuan, eta 1-2koa 29.ean. Atsedendira atzetik joango zirela zirudienean, ordea, Landerrek 2-2koa sartu zuen.

Bigarren zatian abaguneak izan zituzten bi taldeek gola sartzeko, eta etxekoek lortu zuten azkenean, Jon Arozenak maisuki jaurtitako falta bati esker: eskuadra guztitik sartu zen baloia. Azkenean, 3-2 ISUren alde. Aretxabale-tako final handian izango dira emaitza horri esker. Liga erregularreko txapelkun Pescados Ferreresen kontra jokatuko dute, larunbatean, 19:00etan.

Bi denboralditan, bi final

Gipuzkoako 2. mailan ari den Cecilia Kebab Lasarte Ostadar taldearen garapenak ez dauka etenik. Pare bat urte daramatza konpetitzen taldeak, eta bi finaletara sailkatu da. Iaz 3. mailatik 2.era igo ziren, eta aurtengoan errepikatu egin nahi dute balentria, 1go mailara igota.

Horretarako, Power Rangers FC taldea hartu beharko du mendean Aretxabaletan, larunbatean, 12:30ean hasita. Animo ezin hobeto ekingo diote erronkari Edu Menaren mutilek, larunbatean Gamon Aker liga erregularreko liderari irabazita sailkatu baitira finalera. Iñaki, Sergio Pelaez, Iker eta Javi Vecillaren golei esker, 2-4 gailendu ziren Oretako Beraun pilotalekuan. Power Rangersek, berriz, 3-1 irabazi zuen beste finalerdia, Makax CDren kontra.



ISU Leihoak taldea, ostiraleko partiduari ekin aurretik.



Cecilia Kebab Lasarte Ostadarreko kideak, sailkapena ospatzen.

— Agenda —

Astelehena 9-Asteazkena 11, 19:30ean, Manuel Lekuona kultur etxea



Sufrimendua hizpide

Danok Kide elkarteak antolatutako Balioetan Hezi XIII. jardunaldietan Bake-tik elkarteko Iker Uson kideak 'Sufrimendua Ulertuz' hitzaldi sorta eskainiko du. Astelehenean, sufrimendua ulertze-ko gakoak eskainiko ditu. Asteartean, berriz, sufrimendua nola sortzen den azalduko du. Azkenik, asteazkenean, sufrimenduan murgildu eta laguntzari buruz ere hitz egingo du.

Lasarte-Oria

Hitzaldia

VILLA MIRENTXU

Astelehena 9, 19:00etan

Errenterian aurrera eramanean den bizikidetzaren esperientzia ezagutzeko Julen Mendoza Errenteriko alkateak hitzaldia eskainiko du. Esperientzia azaltzeaz gain, argibideak ere emango ditu. EH Bilduk bizikidetzaren lantzeko antolatutako zikloaren barruko ekintza da.

Euskararen 9. Maratoia

GAZTELEKUA

Asteazkena 11, 19:00etan

Euskararen 9. Maratoiko aurkezpena egingo da. Zortzikotea, leloa, irudia... jakitera emango dira.

Mahai-ingurua

VILLA MIRENTXU

Osteguna 12, 19:00etan

'Lasarte-Orian euskararen bilakaera. Atzera begira, aurrera begiratzeko' mahai-ingurua egingo da. Mailu Arruti, Pello Sasian eta Marga Iturriza izango dira bertan. Moderatzailea, Onintza Irureta. Ttakun Kultur elkarteak eta Argiak elkarlanean antolatutako ekintza da.

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala 13, 22:00etan

Okendo Zinema taldearen bideo forum atalean, Pedro Almodovarren azken lana den 'Julietta' eskainiko dute. Sarrera, 5,50 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 15, 17:00etan

Haurrentzako zinema atalean, 'El libro de la selva' filma 3Dn eskainiko dute. Sarrera, 4,80 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 15, 19:30ean

Helduen zinea atalean, 'Julietta' filma eskainiko dute. Sarrera, 5,50 euro.

Bertso saioa

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata 14, 22:00etan

'Berritsuketan bertsoan' Udaberriko bertso saioa eskainiko da. Bakarrizketak izango dira protagonistak. Ane Labaka, Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña izango dira bertsoan. Gai jar-

tzaile, Bea Egizabal izango da. Sarrera, 5,50 euro.

Dantza Topaketa

SASOETA IKASTETXEA

Ostirala 13-Igandea 15

Euskal Herriko Kontakt Inpro Elkarteak antolatuta, III. Topaketa izango da. Ikastaroak eta jam sesioak egongo dira.

JALGI KAFE ANTZOKIA

Larunbata 14, 00:30ean

Dantza festa izango da.

OKENDO PLAZA

Igandea 15, 13:00etan

Maidar Oiartzabelek zuzendutako performancea eskainiko dute.

Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIA

Maiatzean zehar

Estudio del Pintor akademiako ikasleek ikasturtean zehar egindako lanak aurkeztuko dituzte.

ANTONIO MERCERO GUNEA

Maiatzaren 9tik 14ra

Argia Astekaria eta Ttakun kultur elkarteak antolatuta, 'Trantsizioak' erakusketa izango da ikusgai. Argazkien bitartez, azken 40 urtetan izandako eraldaketa sozial eta politikoa islatzen da.

Irakurle Txokoa

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Asteartea 17, 18:30ean

Irakurle Txokoko lagunek Danele Sarriguarte eta Unai Villena idazlearen laguntzaz, 'Hauts haietatik' liburua aztertuko dute.

— Herritarren txokoa —

Eskutitza

Zarata Vs Musika: Bide eman euskarari! Ekainak 4, 17:30, Euskaltzaleen ManiFESTazioa

Zarata, batzuetan arrabotsa. Gezurrak. Mespretxuak. Probokazioak. Tresnak, horiek, baina helburua, bakarra eta argia: euskararen berreskuratzea oztopatu, lehen bezelaxe, baita orain ere. Geldiezi dena, geldiarazi. Erregimenaren indarrek lehendik ere diskurtso hori bera erabili izan dute, baina Gobernuak utzi behar izan zutenetik, nabarmenagoa izan da jokamoldea: euskara = gatazka, inposaketa, segregazioa. Gorrota ditzagun, eta horrela, irabaziko dugu! Elkarbizitza eta desberdinen arteko errespetuaren alde ari direnentzat, eredu kaxkara da hori!

Zarata horren aurrean gorrarena egitea ez da nahiko. Zarata horri, musikaren bidez egin behar diogu aurre. Musika, aldarrikapena eta bizipoza, horiek bait dira gure tresnak. Modu horretara, islaraziko ez baditugu ere, zarata hori estali behintzat estaliko dugu. Eta gozatu egingo dugu, gure txaranga, batukada, fanfarre eta abarrekin. Euskaldun izateaz harro gaudela aldarrikatu ez ezik, ospatu ere ospatuko dugu. Esan diezaiogun argi: euskara jakitea balio erantsia da edonorentzat, eta euskara bera aberastasuna da Nafarroako gizarte osoarentzat, bai hizkuntza mailan, baina baita kultura, gizarte eta ekonomia mailan ere. Are gehiago: aniztasuna, errespetu, heldutasun eta askatasun adierazle ere bada.

Sexualitate, jatorri, edo bestelako nortasunetik haratago, pertsonen eta herrien arteko berdintasunaren alde dihardutenengandik gertuago sentiarazi gaitu euskaltzale bezala bizitzeko egin behar izaten dugun eginahalak. Norberak berean, baina batzuk zein besteok, guztiok dakigu eskubide eta aukera berdintasunak gorrotatzen dituzten horiek zer nolako tresnak erabiltzen dituzten euren helburua lortzeko. Handia txikia baino gehiago ez dela ikasi dugu. Landareen eta pertsonen antzera, hizkuntzek ere ingurune aproposa behar dutela bizirik irauteko. Eta mundu osoan, euskararen ingurune naturala, hemen bertan baino ez dago. Helburu bakarra izan dezake euskarari ongari hori ukatu nahi dionak: euskara bera desagerrarazi.

Lorea Agirrek esana da: euskaltzale naiz, feminista naizelako, eta feminista naiz, euskaltzale naizelako. Eta ederki aski ulertzen dugu hori guk. Horregatik uste dugu berdintasunaren alde eta giza eskubideen alde borrokan ari den orok gure herrian euskaraz bizitzeko eskubidearen alde ere borrokatu beharko lukeela. Mugen gainetik borrokatu, muga horiek gainditu eta apurtuz. Kontrakoa ulertuko duenik ez da.

Nafarroako Gobernuan eta hauxe osatzen duten alderdien artean euskaltzale gehiago dagoen honetan, manifa?

Gobernu honek, eta berau osatzen duten alderdiek, euskararen garapenerako mesedegarri izango diren neurriak hartu dituzte, bai, baina baita kontrakoak ere. Txalagarriak dira aldekoak, noski, baina kontrakoak salatzen modukoak ere badira.

Euskarara dagokionean, ez dira nafar guztion eskubide eta aukerak berdinak izango direla bermatuko duen lege esparru bat adosteko gai izan. Zehazteke dago berdintasun horretarako bidean zein urrats emango dituzten, eta batez ere, aldeketa horren kontra zein alderdi agertu ziren.

Euskalgintzan eta euskarazko komunikabideen esparruan ari garenontzat oso kaltegarriak diren erabakiak hartu ditu Nafarroako Gobernuak. Haserre eta minduta gaude horrekin. Orain arte ez bezala, gobernu berriak aurrerantzean aldeko neurriak hartuko dituelakoan, Eusko Jaurlaritzak bertan behera utzi du orain arte ematen zigun diru laguntza. Baina gobernu berriak erabakitako kopurua ez da inolaz ere, ez espero genuena, ez gure lanean aurrera egiteko behar dugunaren adinakoa. Ondorioa: laz baino diru gutxiago jasoko dugu euskarazko komunikabideok aurten. 2008. urtean jasotzen genuenaren ia erdia. Kezkagarria oso, eta batez ere, ulertzen zaila. Diru poltsa 300.000 eurokoa beharrez 900.000koa balitz, orduan ere oposizioak zarata bera egingo luke. Alde gutxi legoke zentzu horretan. Eta hala ere, toki telebistek jasoko duten 1.600.000 eurotik urrun geratuko litzateke balizko kopuru hori. Eta ez dugu uste eragin nabarmenik izango lukeenik

gure zakutxoaren handitze horrek aurrekontuen poltsa orokorrean. Aldekoak berriz, nabarmenak lirateke: gure lanpostuak sendotuko lirateke, eta etorkizuneko hobetzeko aukera emango liguke. Iku-sitakoak ikusita, nola arrazoituko dute etorkizuneko proportziozko igoera zintzo eta zuzena? Izango al da halako igoerarik?

Bada txalotzekoa, eta horrenbestez txalotzeko inolako arazorik ez dugu, bai hainbat ekitalditan bai hartutako hainbat neurrietan ere euskararekiko erakutsitako errespetua. Eredugarri bada jarrera hori, eta horrenbestez, ongi etorria bedi! Hizkuntzaren ez ezik hiztunen prestigiatzea ekarriko dute erabaki horiek, eta horren premian ere bageunden, bai: Sarrigurenoko D eredu, Euskal Herri Irratiaren legez-tatzea, hainbat diru laguntza berreskuratuta izana, EITBren seinale ahalbidetzeko neurriak...

Manifestazio honekin Nafarroako Gobernuari, eta gobernu osatzen duten alderdiei erakutsiko diegu asko garelako eskubide eta aukera berdintasunaren alde hartutako neurri horiek txalotzen ditugun herritarrek. Arduraz jokatu dugula, eta lagundu nahi dugula. Bide horretan bidaide izango garelako beti. Baina era berean, justiziazkoa dena, eta dagokiguna eskatzen jarraituko dugula. Ekainaren 4ean zuen zain ere izango gara!

URKO ARISTI URDANPILLETA,
TOKIKOMENKO LEHENDAKARIA
OSKAR ZAPATA SOLANO,
EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA



Telleria eta Mugertza anaien arteko desafioak ikusmira sortu zuen Azkorte bertaratutakoeren artean.

Erromeria igande haizetsua

Herritar ugari animatu ziren Azkorte ermitara igotzera

Haize zakarrari desafio eginez, herritar ugari igo ziren atzo goizean zehar Azkorte ermitara, Ttakun KEk, Udalak eta herriko hainbat taldek elkarlanean antolatutako erromeriaz gozatzera. Herri kirolak, dantzaldia, eta, nola ez, indarrak hartzeko jaki eta edariak izan ziren protagonista.

TXINTXARRI

U sadioari jarraiki, Santa Krutz eguna ospatu zen atzo goizean Azkorte ermitan. Herritarrek ez zuten hutsik egin, eta oinez zein autobusez joanda, Ttakun KEk, Udalak eta herriko hainbat eragilek elkarlanean prestatutako erromeriaz gozatu zuten. Haizea ere ez zen oztopo izan, egitarauan aurreikusitako ekin-tza denak egin baitziren.

Goiztiarrek Gurutze Santuko Ama Birjina gurtu ahal izan zuten, ermitan bertan; Urrietako apaiz Xabier Muruak eman zuen meza. Bertan, Alboka abesbatzako kideek egin zuten korua.

Mezara sartu ez ziren herritarrek ez zuten denbora galdu. Hamaiketako legea egin zuten

horietako askok, Ttakun KEk eta hainbat herritarrek prestatutako txorizo zein haragi egosi pintxoak eta sagardo freskoa edanez. Biyak Bat adinekoen elkartekoak ere hartu zituzten indarrak, eurek prestatutako patata tortila ogitartekoekin.

Oinez igo ziren Azkorte mendizale asko, eta baita autobusez ere, Biyak Batek jarritako zerbitzua gora eta behera ibili baitzen goiz osoan zehar.

Erromeria eta herri kirolak

Ohi bezala, Ttiriki Ttarrakako kideek alaitu zuten Azkorte, trikiti eta pandero doinuekin. Ez ziren gutxi izan hamaiketako egin eta gero dantza egitera animatu ziren herritarrek, ume zein helduak, eguraldiari dagokionez triste samarra izaten ari zen eguna alaitu asmoz.

Tarte luze batez jotzen aritu ostean, tartetxoak egin zuten Ttiriki Ttarrakakoek, hastear baitzeuden herri kirolak.

Batetik, aizkora eskuan, Mutrikutik etorritako Aratz eta Ugaitz Mugertza anaiak. Bestetik, Telleria anaiak, Beñat eta Urtzi, mota guztietako harriak jasotzen trebeak. Erakustaldia-ekin gogotik gozatu zuten Azkorte bertaratutakoek.

Makina bat proba eta desafio burutu zituzten atzokoan. Aratz eta Ugaitz hasi ziren: ea nork kolpe gutxiagotan moztu enborra. Anai zaharrak, Ugaitzek irabazi zuen, 53 kolpetan amaituz lana. Ondoren, Beñat Telleriak 138 kiloko harria bost aldiz jaso zuen, 1:11ko denbora eginez. Urtzik hirutan altxa zuen 150 kiloko koadro zaharra, 1:19ko denboran. Ondoren, anai zaharrek –Ugaitz eta Urtzi– desafioa jokatu zuten gazteen –Aratz eta Beñat– kontra. Aizkoran eta harriak jasotzen aritu ziren aurrena, eta trontza moztzen, gero. Zaharrak nagusitu ziren azkenean.



Nerea Eizagirrek zuzenduta, Alboka abesbatzak egin zuen korua atzoko mezan.



Erromerian dantza egin, eta, gero, tabernan indarrak hartzera pintxo eta edariekin.



**LASARTE-USURBIL
INSTITUTUA**

• D.B.H. • BATXILERRA

**AURREMATRIKULAZIOA
maiatzaren 2tik 12ra**

